



Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza: euskararen norabideak sinposioa

(Symposium on Juridical Translation and the Basque language: new realities)

GALLASTEGI ARANZABAL, Cesar

Deustuko Unibertsitatea
Unibertsitateen etorbidea 24
48007 Bilbo
cgallas@der.deusto.es

BIBLID [1137-1951 (2005), 14; 91-96]

Sarrera eguna: 2005.05.11
Onarpen eguna: 2005.09.05

D

eustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak, hogeita bost urte bete zituela ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zuen iaz, eta horietako bat dugu, hain zuzen ere, Hizkera Juridikoari eta Itzulpengintzari buruzko Sinposioa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin batera prestatu zuena. Bere baitan, Unibertsitateak berak landutako euskarazko lege testuen aurkezpena ere egin zen.

Giltza hitzak: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua. Hizkera Juridikoa. Itzulpengintza.

E

l Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto organizó en el año 2004 una serie de actos para conmemorar su 25º aniversario, entre los cuales cabe destacar el Simposio sobre la Traducción Jurídica y el Euskara, organizado junto con el Instituto Vasco de Administración Pública. En estas jornadas fueron presentados, asimismo, los textos legales bilingües elaborados por la citada Universidad.

Palabras clave: Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos. Terminología Jurídica. Traducción.

Z'

Institut d'Etudes Basques de l'Université de Deusto organisa en 2004 une série de cérémonies pour commémorer son 25ème anniversaire, parmi lesquelles il faut remarquer le Symposium sur la Traduction Juridique et l'Euskara, organisé avec l'Institut Basque d'Administration Publique. Lors de ces journées furent présentés, également, les textes légaux bilingues élaborés par la dite Université.

Mots Clés: Université de Deusto. Institut d'Etudes Basques. Terminologie juridique. Traduction.



1. Sarrera. 2. Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko ekina: hogeita bost urteko ekarria. 3. Jurista, itzultzailea eta itzulpen juridikoa. 4. Europako Erkidegoko antolamendu juridikoa, zuzenbide eleaniztuna. 5. Itzulpen juridikoa eta euskararen historia. 6. Gerra ondoko itzulpen juridikoaren bilakaera: joe-rak eta emaitzak. 7. Hizkuntzalaritza eta itzulpen juridikoa. 8. Jurista euskalduna, jurista elebiduna. 9. Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren ekarria. 10. Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, itzulpenaren ikuspegitik: Deustuko Unibertsitatea. 11. Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, itzulpenaren ikuspegitik: UPV-EHU. 12. Mahai-ingurua: Euskarazko testugintza juridikoa, itzulpenaren eskutik. 13. Zuzenbideko liburu berrien aurkezpena. 14. Itxiera-ekitaldia eta jardunaldien argitalpena.

1. Sarrera

Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak hogeitabost urte bete zituen iaz. Urteurren hori ospatzeko zenbait ekintza aurreikusi ziren 2004. urterako, horien artean euskara juridikoari lotutako ekitaldi bat. Euskal Gaien Institutuak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin asmo horri buruz hitz egin zuen, hain zuzen, hizkera juridikoari eta itzulpengintzari buruzko jardunaldi batzuk elkarrekin antolatzeko.

Elkarlan horren emaitza da Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak 2004ko azaroan antolatutako sinposioa. Antolatzaileek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntza ere izan zuten.

Sinposioaren koordinatzaileak Santiago Larrazabal, Euskal Gaien Institutuko zuzendaria, eta Eneko Oregi, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeako Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialeko burua, izan ziren.

Jardunaldiak 2004ko azaroaren 17 eta 18an egin ziren, Deustuko Unibertsitateak Bilbon duen egoitzaren Entzungelan. Sinposioak arrakasta handia izan zuen, 300 pertsona baino gehiago bertaratu ziren eta. Hizlariak ere gustura aritu ziren.

Sinposioaren egiturari dagokionez, batetik, hitzaldiak egin ziren, bederatz, hain zuzen ere; bestetik, mahai-inguru bat antolatu zen, jardunaldiei bukaera emateko. Azkenik, lege-testu berriak aurkezteko tartetxoak ere izan zen, lehenengo lane-guneko eguerdian.

Jarraian, sinposioaren ekitaldi eta hitzaldien berri laburra emango dugu, banan-banan.

2. Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko ekina: hogeita bost urteko ekarria

Jardunaldietako lehenengo hitzaldiak izenburu hori izan zuen. Baina, horren aurretik, parte hartzaile, gonbidatu eta ikusleei harrera egin eta aurkezpen ekitaldia izan zen, Santiago Larrazabalen (Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria) eta Jon Koldobika Urrutiaren (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendaria) eskutik.

Lehen hitzaldiaren arduraduna Santiago Larrazabal izan zen. Santiago Larrazabal, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Konstituzio zuzenbideko irakaslea izateaz gain, Euskara Juridikoaren Mintegiko kide eta Euskal Gaien Institutuko zuzendaria da; gainera, jardunaldien antolaketa koordinatu du, Eneko Oregirekin.

Hitzaldiaren gai nagusia Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko ibilbidea izan zen; izan ere, 2004an, bi urtemuga garrantzitsu ospatu ziren: Bizkaiko Ikaskuntzen Departamentuaren hogeita hamargarren urteurrena eta Euskal Gaien Institutuaren hogeita bosgarren urteurrena. Urte horietan hainbat eta hainbat lan burutu dira Institutuaren barruan, bai euskarazko testu juridikoak eskaintzeko, bai euskara juridikoaren inguruko ikerketak plazaratzeko.

3. Jurista, itzultzailea eta itzulpen juridikoa

Jardunaldietako bigarren hitzaldia Enrique Alcaraz irakasleak eman zuen, "Jurista, itzultzailea eta itzulpen juridikoa" izenburupean. Enrique Alcaraz Alacanteko Unibertsitateko Filologia Ingeleseko katedraduna da eta hainbat liburu argitaratu ditu hizkuntzalaritzari, itzulpengintzari eta ingeleseko hizkera juridikoari buruz.

Hitzaldian, batetik, itzulpen juridikoa eta, bestetik, zuzenbideko adituaren eta itzultzailearen zereginak aztertu zituen. Jorrotutako gaien artean, honakoak: hizkera juridikoa gizarte demokratikoean, *Plain English* delakoa, itzultzaileen eta epaileen arteko konparazioa, legelaria itzultzaile modura eta itzultzailea legelari bezala. Azkenik, hizkera juridikoaren berezitasunak aztertu zituen, hiztegi juridikoa barne.

Laburbilduz, diziplina arteko lankidetasuna eta itzulpen lanaren egingarritasuna eta zilegitasuna aldarrikatu zituen.



Sinposioaren irekiera saioan egindako argazkia; ezkerretik eskuinera: José Palacio (hizlaria; Europako Erkidegoetako Lehen Auzialdiko Auzitegiaren Idazkaritzako administratzaile nagusia eta Auzitegi bereko Itzulpengintza Zuzendaritzan Espainiako Sailaren jurista-hizkuntzalari), Jon Koldobika Urrutia (sinposioaren aurkezlea; Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria), Santiago Larrazabal (sinposioaren aurkezlea; Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria) eta Enrique Alcaraz (hizlaria; Alacanteko Unibertsitateko Filologia Ingeleseko katedraduna).

4. Europako Erkidegoko antolamendu juridikoa, zuzenbide eleaniztuna

Atsedenaldia egin ondoren, José Palacioren parte hartzea etorri zen. José Palacioren lanbidea Europar Batasunari lotuta dago erabat: Europako Erkidegoetako Lehen Auzialdiko Auzitegiaren Idazkaritzako administratzaile nagusia da eta, aldi berean, Auzitegi bereko Itzulpengintza Zuzendaritzan Espainiako Sailaren jurista-hizkuntzalari.

Berbaldiaren norabideak hauek izan ziren: Europako Erkidegoko antolamendu juridikoa, Europako zuzenbide eleaniztuna eta horrek itzulpen juridikoan dituen ondorioak; gainera, aipamen berezia egin zitzaion Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren egoerari.

Egileak azaldu zuenez, kontuan izan behar da Europako zuzenbidea eleaniztuna dela eta Europakoa antolamendu juridiko berezitatat jo daitekeela. Europar Batasunean badago hizkuntza ofizialen inguruko arauketa bat eta, zer esanik ez, justizia organoen inguruan badago hizkuntza araubide berezia. Egileak legegintzaren inguruan ematen den hizkuntza aniztasuna ere aipatu zuen. Are gehiago, gerta daiteke, itzulpena dela eta, arau bati buruz testu kontrajarriak egotea.

5. Itzulpen juridikoa eta euskararen historia

Arratsaldeko lehen saioaren gaia "Itzulpen juridikoa eta euskararen historia" izan zen; hizlaria, berriz, Cesar Gallastegi irakaslea, Zuzenbide Fakultateko administrazio zuzenbideko irakaslea, Euskara Juridikoaren Mintegiko kidea eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko kidea.

Euskarazko itzulpengintzaren historiari errepassoa emateko, hizlariak irudi batzuk prestatu zituen, hogeita hamar, gutxi gorabehera. Euskarazko itzulpen juridikoaren ezaugarri orokorrak gogoratu ondoren, historiako zertzelada nagusiak errepassatu ziren, euskararen inguruko estatusaren eta korpusaren gorabeherak barne.

Euskarazko itzulpen juridikoaren datu hotzez gain, hizlaria bestelako kontuak ere aipatzen saiatu zen, itzulpen lana hurbil-hurbiletik agertuz.

Horretarako, itzultzaileen izen-abizen batzuen aipamena egin zuen edota itzultzaile horien arazoak komentatu zituen, betiere garaian garaiko dokumentuak eta testuak erabilia.

6. Gerra ondoko itzulpen juridikoaren bilakaera: joerak eta emaitzak

Euskarazko itzulpen juridikoaren historia-rekin jarraituz, arratsaldeko bigarren berbaldiak azken urteetako ibilbidea aztertu zuen. Hizlaria Gotzon Lobera izan zen, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailean euskara sustatzeko zuzendari nagusia, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko euskara tekniko-juridikoaren irakaslea eta Euskara Juridikoaren Mintegiko kidea.

Hitzaldiaren hasieran, demokraziaren aurretiko kontuak azaldu zituen hizlariak; egia esan, euskarazko itzulpen juridikoaren emaitzak urriak izan ziren, baina esanguratsuak aldi berean. Koofizialtasunarekin, berriz, itzulpenak ugaritu ziren; era berean, itzulpen joera desberdinak garatu ziren sasoi horretan. Azkenik, egileak azken urteetako itzulpengintzari buruzko gogoeta batzuk mahaigaineratu zituen.

7. Hizkuntzalaritza eta itzulpen juridikoa

Atsedenaldi labur bat egin ondoren, arratsaldeko saioak aurrera egin zuen. Adolfo Arejita izan zen hurrengo hizlaria, Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultateko Euskal Filologiako irakaslea, Labayru Institutuko kidea eta Euskaltzaindiko euskaltzain osoa.

Adolfo Arejitak hitzaldian zenbait itzulpen historiko aztertu zituen, hizkuntzalaritzaren ikuspegitik. Erabilitako testu historikoak mota desberdinetakoak izan ziren: ezkontza zinegiteko formulak edota gutun zaharrak; testu araugileak ere ez ziren falta: Arrasateko 1705eko bandoa edota Eibarko hauteskundeetarako 1754ko ordenantzak; bestalde, aipagai izan ziren Mogelen testu latinoen bertsioak edota Jose Antonio Uriarte frantziskotarraren itzulpen-lana Bizkaiko Batzar Nagusietan.

Hitzaldi horren ostean, galde-erantzunetarako tartetxoa egin zen. Horrela, lehen eguneko jarduna bukatu zen.

8. Jurista euskalduna, jurista elebiduna

Bigarren eguneko saioak 9.30etan hasi ziren. Osteguneko lehen hitzaldia Andres Urrutiaren eskutik etorri zen. Andres Urrutia notarioa, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko foru zuzenbide zibileko irakaslea, Euskara Juridikoaren Mintegiko koordinatzailea, Euskal Gaien Institutuko kidea eta Euskaltzaindiko burua da.

Andres Urrutia historiaren norabideak euskararen harian aztertzen hasi zen. Gero, legelari euskaldunaren egungo egoera aipatu zen, itzulpengintzaren ezinbestekotasuna azpimarratuz. Era berean, hitzaldian euskararen moduko hizkuntza gutxituetan itzulpengintza juridikoaren eragingarritasuna azaldu zen. Azkenik, euskal legelarien eguneroko jarduna eta euskal legelari eta itzultzaileek etorkizunari begira dituzten erronkak garatu zituen hizlariak.



Sinposioaren barruan lege testuen bildumaren aurkezpena egin zen; argazkian, ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia (bildumaren koordinatzailea), Jon Koldobika Urrutia (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendaria), Javier Oraá (Deustuko Unibertsitateko errektorea), Fernando Ruiz Piñero (Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea), Belen Greaves (Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua), Abel Lopez de Aguilera (Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria) eta Santiago Larrazabal (Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria).

9. Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren ekarria

Hitzaldiaren arduraduna Eneko Oregi izan zen, hain zuzen, itzulpen zerbitzu horren burua. Horrez gain, Eneko Oregi, Santiago Larrazabalekin batera, sinposioaren antolaketa eta koordinazioaz arduratu zen.

Eneko Oregik jarduna bi zatitan banatu zuen. Batetik, HAEE-IVAPeko itzulpengintza 2000. urtera arte eta, bestetik, hortik aurrerako kontuak. Lehengo zatiari dagokionez, Eneko Oregik hemezortzi urteko garapenari buruz hitz egin zuen. Horren ondoren, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren sorrera aipatu zuen, izan ere, 2000ko otsailaren 29an onartu zen IZO arautzen duen Dekretua. Dekretu horren arabera, IZO HAEE-IVAPi atxikitako zerbitzu bat da. Bestalde, hizlariak HAEE-IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren oraingo eta etorkizuneko erronkak ezarri zituen: arazo berrietarako prest eta prestatuta egotea, hain zuzen. Azkenik, etorkizunari begira IZOren asmoak zeintzuk diren azaldu zuen.

10. Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, itzulpenaren ikuspegitik: Deustuko Unibertsitatea

Aurreko bi hitzaldiak entzun eta atsedenaldia egin ondoren, unibertsitate munduko lana ezagutzeko aukera egon zen. Horretarako, Esther Urrutiak (Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko zuzenbide zibileko irakaslea, Euskara Juridikoaren Mintegiko kidea eta Euskal Gaien Institutuko kidea) hitzaldi bat prestatu zuen Deustuko Unibertsitateak zuzenbidearen euskarazko irakaskuntzan eman dituen urratsei buruz.

Hasteko, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak euskarari ematen dion garrantzia aipatu zuen. Jarraitzeko, euskarak Fakultatean egin duen ibilbidea adierazi zuen. Horren ildotik, lanean hasi orduko egon ziren eragozpenak aipatu zituen, euskara juridikoari zegokionez. Horren ondoren, lan egiteko modua, itzulpen-prozesua, terminologiaren eta idaztinkeraren lanketa edota zuzenketaren beharra azaldu zituen. Amaitzeko, fruituei (euskarazko eskolak eta argitalpen ugariak) errepa-soa egin eta gerora begira dauden egitasmoak aurreratu zituen.

11. Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, itzulpenaren ikuspegitik: UPV-EHU

Unibertsitatearen esparruko bigarren parte hartzea Itziar Alkortaena izan zen. Itziar Alkorta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean irakaslea da egun, zuzenbide zibila- ren alorrean; irakurleak esku artean duen aldizkari honen idazkaritza ere bere ardurapean dago.

Hitzaldiaren gai nagusia Zuzenbide Fakultatean zer egin den azaltzea izan zen. Hori dela eta, hasierako pausoak, euskara juridikorako mintegia edota terminologiaren lanketa aipatu zituen. Langintza horren barruan eskuliburuen itzulpenak ere egin dira, bai Konstituzio Zuzenbidearen, bai Zuzenbide Zibila- ren eremuan. Azken emaitzen artean, berriz, Jon Landa irakaslearen eta Itziar Alkortaren beraren lanak daude. Hala ere, etorkizunerako beste zenbait liburu aurreikusita daude. Aipagarria da, baita ere, tesi eta ikerketa lanen argitalpena. Azken finean, itzulpen lanari baino, sortze-lanari eman zaio lehentasuna azken bolada honetan. Dena den, zenbait lege-testuren itzulpena ere aurreikusita dago hurrengo urteetarako.

12. Mahai-ingurua: Euskarazko testugintza juridikoa, itzulpenaren eskutik

Arratsaldeko saioaren ekitaldi nagusia mahai-inguru bat izan zen. Mahai-inguruaren izena, hauxe: "Euskarazko testugintza juridikoa, itzulpenaren eskutik". Bertan parte hartze zabala lortzea zuten helburu antolatzaileek. Moderatzaile modura Jon Landa, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko zigorzuzenbideko irakaslea, aritu zen; mahaikideak hurrengo hauek izan ziren: Esteban Umérez (abokatua, Justizia Euskaraz Elkarteko partaide), Josu Barambones (Justizia Auzitegietako itzultzailea), Karlos del Olmo (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretaren Elkarteko lehendakaria), Leire Zenarruzabeitia (UZEIren izenean) eta Manu Arrasate (IVAP-HAEEko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialeko kidea). Hona hemen horien parte hartzeari buruzko ohar laburra.

a) Esteban Umerezen gaia euskal testugintza juridikoaren alorrean abokatu batek izan behar duen jarrerari buruzkoa izan zen. Haren esanetan, beti beharko dugu itzulpena, zuzenbidea erdal hizkuntzatan landuta dator eta. Horren ildotik, legelariak euskaraz lan egiteko dituen tresna eta laguntza batzuk gogorarazi zituen.

b) Josu Barambonesek esan zuenez, tradizioz gabeko jakintza eremu batean aritzen da euskarazko itzulpen juridikoa; horrez gain, itzulpen juridikoaren inguruan arazo bereziak gertatzen dira, hala nola, zuzenbideko hizkeraren hermetismoa edota finkapenik eza. Hizlaria, jarraian, itzultzaile juridikoak bete beharreko arauetara buruz aritu zen.

d) Leire Zenarruzabeitiaren hitzak UZEIk itzulpen bidez landutako testugintza juridikoan duen esperientziari buruz izan ziren. Elkarte horrek zuzenbide prozesalaren esparruan lan egin du gehienbat, zuzenbideari dagokionez: alde batetik, epaitegietan erabiltzen diren agirien ereduak itzuli ditu; bestetik, abokatuek erabilitako idazki-eredu edo formularioen argitalpen elebidunez arduratu dira.

e) Karlos del Olmok ironiaz beteriko parte hartzea egin zuen. Itzultzaile-funtzionario hasiberren kontu gazi-gozaok hartu zituen ardatz. Zorioneko izendapena jaso ondoren, bizitza osorako den lan berrira doa funtzionario berria. Pagotxa, omen. Baina hortik aurrera hasiko dira pertsonaiaren komeriak: zuzenbideko hizkeraren iluntasuna, euskararen egoera bera...

f) Manu Arrasatek ere umorea erabili zuen bere berbalditxoak taxutzeko. Metafora erabilia, euskarara itzultzeko testu juridikoa gizaki batekin konparatu zuen. Biak, gizakia eta testu itzulia, izaki bizidunak dira eta, beraz, jaio, hazi eta hil egiten dira. Hori bai, euskarazko testu itzuliaren bizimodua azaltzeko beharrezkoa da, hizlariak esan zuenez, honako kontzeptuak erabiltzea: laguntza bidezko ernalketa, klonazioa...

13. Zuzenbideko liburu berrien aurkezpena

Sinposioaren antolaketa aprobetxatuz, lehengo eguneko goizaren azken ordua erabilia, "Kode Zibila eta Lege testu elebidunak" izeneko sailaren aurkezpena egin zen. Ekitaldian, Jaime Oraá, Deustuko Unibertsitateko errektorea, mahaiburua izan zen eta alboan izan zituen Jon Koldobika Urrutia, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria, Fernando Ruiz Piñeiro, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea, Belen Greaves, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua, Abel Lopez de Aguilera, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria, eta Andres Urrutia, bildumaren koordinatzailea.

Bilduma horretan lege testu elebidunak argitaratzen dira, hau da, gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako testuak. Euskarazko testuaren ardura Deustuko Unibertsitateak hartzen du, berak bakarrik edo beste erakunde batzuen lankidetzarekin. Ekitaldian lau liburu berri aurkeztu ziren: Kode Zibila, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko foru lege zibilak, Lege zibil bereziak (Jabetza Horizontalaren Legea, Hiri Errentamenduen Legea, Landa Errentamenduen Legea eta Txandakako Aprobetxamendu Eskubideen Legea), eta Zigor Kodearen bigarren argitaraldia. Hurrengo hilabeteetan, beste horrenbeste izenburu plazaratuko dira.

14. Itxiera-ekitaldia eta jardunaldien argitalpena

Mahai-inguruaren ondoren, itxiera-ekitaldiari hasiera eman zitzaion. Jardunaldiak bukatutzat emateko, Rosa Miren Pagola, Deustuko Unibertsitateko Ikasleen eta Hizkuntza Politikako errektoreordea, bertaratu zen.

Sinposioaren antolatzaileen asmoa jardunaldietako bi egunetan azaldutako hitzaldi eta iritziak liburu batean batu eta argitaratzea da. Horretarako, sinposioko parte hartzaileen hitzaldiak jaso eta transkribatu dira, haien parte hartzeen hurrenkeraren arabera. Hitzaldiak aurkezterakoan erabilitako hizkuntza errespetatu da. Hartara, horietako zazpi euskaraz daude; bi gaztelaniaz eta bat bi hizkuntzetan jaso da, elebiduna izan zen eta. Era berean, sinposioaren amaierako mahai-inguruan parte hartu zutenen euskarazko testuak bildu dira.

Kronika hau idazten ari garen unean, aipatutako lana oso aurreratuta dago. Beraz, argitalpena aurtengo udazkenerako kalean izango dela espero dute sinposioaren antolatzaileek, Durangoko azokarako, hain zuzen. Argitalpen horri esker, edozein irakurlek patxadaz aztertu ahal izango ditu jardunaldien barruan plazaratutako ekarpenak eta iritziak.